¿Zein ziyo ixan oi dituzte ama askok beren auřak azitzeko besteri ematеko? Uskeriak askotan. Sendi askotan sařtuta dagon oitura txař oři jařaitzea. Uste dute beren buruak beratu ta apaldu egiten dituztela auřa bulařkatzearekin, au ama batentzat eginkizunik edeřen-edeřena ezpa'litz bezela. Askotan beren jolas ta bizikera eroa utzi-nai-eza, auřaren osasuna ořelakoen atsegin ustelak baño gauza bikañagoa ezpa'liz bezela.

Esan nuan lengo idazkayan auřa bulařkatzeko Izadi-lege oni iges-egitea amarentzat ere kaltegařia zala, ta emasendokeri (1)-gayetan jakintsu diranak diotenez, auřa ez bulařkatzeak emasabela gaitz-bidean jařtzen du. Bulařkatzen ari dan aldian, ordea, emasendokia atsedeten dago, geyenean emalegerik izaten ez dalako ta beriz auřdun nekezago gelditzen dalako.

Eta kalte guzi oyek etořtzen dirala jakin eta oraindik izango dira amaren batzuk beren auřak berak bulařkatu ta azi ditzaketela, bestearen eskuetan jařiko dituztenak, baña ořela azitako semeak iñudea ama baño geyago maitetan ba-du ere, ez geldu, amaren egite okeřaren ordaña izango da.

Baña iñoiz ama auřa bere bulařetan azitzeko ezta gai izaten, ta orduan beste bideren bat ařtu beařean ařkitzen da. Oyezaz itzegiterako, baña amak azi dezakenean *nola egin beař duan, ondo egiteko, erakutsi nai det.*

Uřengo idazkayan asiko naiz.

ZINKUNEGI'TAŘ JOSEBA.
Osatzalia.

# LENBIZIKO ARANTZALIÑA

Otsařian, baratza soil batian, arantzaliña bat
nuan ikusi,
edeř, gustiz bikaña, ta, inguru guzien
gelgaři;
destañez bezela gařendurik zegoan
neguari,
maitaro deituaz makal ageri zan
eguzkiari.

Maiřez mintzaturik, iřun eristen ziyon
baratzari,
udabeři alai zoriontsuaren albistia
zion ekaři,
alpeřik negu gogořa beregan zegoala
agintzari,
udabeřiak il-zauriturik, gaiztoak zeukala
bizi gutxi.

Arantzaliña edeř aren albiste onarekin
pozturik,
baratza soła dena alaitu zan
eguzkiz jantzirik,
bañan negu zitalak bere il-epaya
adiťurik,
gořotoz, gaubean arantzaliña laga zuan
izozturik.

Jeiki zanian egun-senťiya, loretxua zegoan
iya ilik,
bañan udabeřiaren albiste alayak ematen
aspeřtu-gaberik;
gero baratza ilunarik agur maiřekoř bat
eginik,
il zan, ¡gaxua! eguzkiaren laztan biguña
ařturik.

. . . . . . . . . . . . . . . . .

Eldu da garaya, ta naiz ořu egin
amořu aundiyan,
garale, udabeřiak sařtu du, bai, negua
il-obian,
baratza sořak lorez jantzirik du
alaya soñian,
arantzaliña edeř asko sařtu diralako
lenbizikoaren oñian.

TENE.

(1) Itz au ondo-ondo eraldu detanik ere enago. Neronek sořtua izan-aren, enau asetzen, baña egokigorik ez det idoro ta orixe jaři det. Bere zatiak auetxek dira: *emakume sendu toki-eri.*

# GASTEAREN ERIOTZA

(Uhland'en olerkia, doitxerat euzkeratua.)

—«Ene umetxu, ez jatsi baso ilunera,
eure bizia galtzera ua-ta».
—Goyan dau nere Jauna,
bera nere argia;
ez nau utziko berak baso ilunian».

Beruntz doa umetxoa;
udolak ořo-dagi bere oin-pian.
Baso beltzak ots-dagi
bere buru-gañian,
ta arinki eguzkia
lañotan galtzen da.

Eltzen da ebaslien etxe ilunera
ta andera gaste maitagaři bat
dakus atean.
—«Ene umetxoa
aiz oraindikan;
¿zergatik atoř, bada,
eriotz-aranera?»

Gixon-talde ankeřak
oldařka austen du atea,
eta andera gasteak
estaltzen du ařpegia.
Talde ankeřak gero
umetxoa luřera botatzen du,
ta bere zoriona
ebasten dio
ta bere odol-ařtian
etzanda uzten du.

—«Ene au iluna,
euzkirik ez da,
ixařik ere ez.
¿Nori deituko diot?
Nere Jainkoa
¿ain uřuti al-dago?
Ařen, andra gastea,
ořtxe goiko argitan
ař-zazu zeure eskutan
nere gogoa».

*Euzkeratzale.*

# LAPUŘETA GOŘIJA

España'ko eři txiki baten zan. Irakaslarija bere jesař-lekuban jesařita. Pe-
rú'ko gudaldija edestuten iñarduban, mutil-ikastola baten.

Peřú da, iñuan irakaslarijak, Amerika-aldeko lateřija ta geure edestij-
diño, antziñan eldu zala bertara españař gudalari azařtu bat, Pizarro eretxo-
bere gudarozte andijaz, eta ařtu ebala luřalde edeřa España'rentzat, emen-
bakalduna Perú'ko lateřijaren jabe egiten zala.

—Eta luřalde ořetan ¿biztanlerik ezeguan?—itandu eutson mutilxu ba-
irakaslarijari.

Biztanliak bai egozan; baña basatijak ziran.

—Bai baña, dana dala, Perú bertako biztanle basatijen abeřija edo-
¿ezta?

Bai, euren abeřija zan, eta ¿zer esan gura dozu ořegaz?

—Pizarro gudalarijak bere gudarozte andijaz egin ebana, lapuřeta g-
-gořija ixan zala.

—Ez olakorik. Pizarro'k egin ebana etzan ixan lapuřetan.

Españařak asko ziran... ikuřiñez beterik joyazan... gudaldija irabazi e-
...eta ori... ezta iñoz ixan lapuřetea.

Ixildu zan mutiltxuba irakaslarijaren itxokaz, eta onek, Perú'ko guda-
edestuten jařatu eban.

Ikastolatik uřten eta batzaldu ziran mutil gustijok eriko zeyan; adaki-
tzuk ařtu ta euren suř-zapijok loki txiki batzukaz adakijai lotu, ta ikuřin-
batzuk egin ebezan.

Irakaslarijari erantzun eutson mutilxuba, euren buru zala juan ziran-
ortura, ta okaran-zugatz edeř batera igon eta onen igalija polito jaten-
zala, ikusten dauz irakaslarijak bere etxeko leyotik, eta bai dirautse di-
ka: ¡¡Lapuř ařanuok!! ¡¡la bera ořtik!! Baña, buru zan mutilak derantzuts-
au ezta lapuřetea. Asko gara, ta ikuřiñakaz gatoz; gudalarijak gara beraz-
gudaldija irabazi dogula deritxat.

¡Gora España! didař egin eban mutiltxubak, eta ¡gora! erantzun e-
danak batera.

**Rousse ta lagunak**

*Ledesma*-15'*ka.* 1458'*g. uřutiskiña (telefonua)*

Ikatz eta patata-bildegi andijak. Batez-be ereřeko patat